



Zurriolako Ataria

30. alea

2018-09-14

Ziklometroak igandean Hurratik

Igandean *Ziklometroak* ospatuko ditugu Zurriolan [Kmk 2018](#)ren alde. **14:20ean** Axular lizeokoen lekukoa Hurrako patio parean hartu eta Pasaiairaino eramango dugu. Goizean Oñatin hasi eta iluntzean Urretxun amaituko den ibilbidean Zurriolak 5 Km egingo ditu. Deialdia guraso eta langileei zuzenduta dago bereziki batz best 15km orduko abiadura aurreikusten den tarte honetarako.



Bekak

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak ikasturte honetarako ikasketabeka deialdia argitaratu berri du. Datorren astelehenean eskaeraepea zabalduko da. ([info+](#))



Euskarako eskolak gurasoentzat

Ikasturte honetan ere Zurriolako gurasooi zuzendutako euskarako eskolak antolatuko dira Ategorrietako egoitzan *Hitzez* euskaltegiarekin batera. Izena emateko egin klik [hemen](#) Irailaren 24a baino lehen.



POP ART. Arte Batxilergoko 2. mailako ikasleek 50. hamarkadako korronte artistikohonen lanak ezagutzeko aukera izan dute Kurasaalen. ([info+](#))



OHARRAK / AGENDA:

- Guraso bilera orokorrak: [Bilerak](#).
- DBH1 ikasturte hasierako irteerak: Irailak 20-21. [Zirkularra](#).
- DBH1 Guraso bilera orokorra: Irailak 19. [Txostena](#).

